

GOZATU UDAN IRAKURTZEN ETA JOLASEAN

2023KO
EKAINA

Oporretan irakurri eta egin jolas elkarrekin!




- Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martin Udal Liburutegiak opor garaian familian euskaraz gozatzeko moduko jolasak, liburuak eta eduki digitalen gomendioak proposatzen dizkizuegu.

El Servicio de Euskera y la Biblioteca Municipal Juan San Martín os ofrecemos una selección de juegos, libros y contenidos digitales en euskera para disfrutar en familia durante las vacaciones.

ENTZUTEN / ESCUCHANDO

0-4 URTE



LEHEN IRAKURLEAK / APRENDIENDO A LEER

+5 URTE



AFALTZERA ETORRI ZEN TIGREA / STEVE SMALLMAN

Denonartean, 2023

Otsok, Erregosik eta Tortillak tigrekume bat aurkitu dute.

Tigre txiki, polit eta iletsu bat. –Etxerako gorde dezakegu? –erregutu zion Erregosik-. Besarkada bat besterik ez du nahi!. Baina tigrekumeak plan bat du, plan MALTZURRA!

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



KATA BASAMORTUAN/ MIREN AGUR MEABE

Elkar, 2023

Haizeak kromo bat lapurtu dio Kattari. Kromo galduari segika, basamortura helduko da Sareekin. Eta basamortuan barrena...

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



EKAITZA LEHERTZEN DENEAN / BEA TABOADA

Algar, 2022

Batzuetan, emoziozko ekaitz batek burua lainotzen dit. Amak esaten du 'ekaitz horiek bat-batean etortzen direla, eta hodeiak, euria eta trumoiak ekar ditzaketela. Badirudi ezinezkoa dela gelditzea. Baina amak ere, batzuetan, trumoiak izaten ditu buruan, eta berak oso ondo daki nola sentitzen naizen eta zer egin dezakedan.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



ETXE HANDIA ETA ETXE TXIKIA / YOSHI UENO

Ibaizabal, 2022

Etxe handi batean, hartz handia bizi da, bakarrik. Etxe txiki batean, arratoitxo txikia bizi da, bakarrik. Oso gertu bizi diren arren, inoiz ez dute topo egin. «A zer bakardadea», kexatzen dira biak. Egun batean bizitzan aldaketa txiki bat egitea erabaki arte.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

LEHEN IRAKURLEAK / APRENDIENDO A LEER

+5 URTE



PILOTA PIZTIA / OLGA DE DIOS Denonartean, 2023

"Nor naiz? Erantzuna ezagutzera ausartzeak Nor naiz? Erantzuna ezagutzera ausartzeak leku zoragarrietara eramango gaitu. leku zoragarrietara eramango gaitu.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



LIBURUAK TEILATUAN / THOMAS VAN OOSTRUM Ttartalo, 2023

Ohartu al zara? Arrainak leihoan igerian al dabilta? Teilatua liburuz egina al dago? Eta semaforo bat al dago etxeko ate parean? Lehenengo begi kolpera, liburu honetako etxea arrunta irudituko zaizu, baina arretaz behatzen baduzu, berehala ikusiko dituzu hamaika gauza eta egoera xeble.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



URTEBETETZEA / NONO GRANERO A Fin de Cuentos, 2023

Gaur, Kaltzaren urtebetetzea da, baita Ttanttorena ere. Ez, ez, zer diot ba nik. Brinkoren urtebetetzea da. Baita Txasena ere! Inor ez da gogoratzen besteen urtebetetzea ere badela egun horretan, eta beren opariaren zain daude, poz-pozik. Baina ez zaie oparirik iritsi, denek espero zutelako oparia jasotzea, eta ez ematea.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



SORGIN DIBERTIGARRIA / RICARDO ALCANTARA Pamiela, 2023

Etxe handi batean, hartz handia bizi da, bakarrik. Etxe txiki batean, arratoitxo txikia bizi da, bakarrik. Oso gertu bizi diren arren, inoiz ez dute topo egin. «A zer bakardadea», kexatzen dira biak. Egund batean bizitzan aldaketa txiki bat egitea erabaki arte.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

IRAKURLE AURRERATUAK / LECTORES/AS AVANZADOS/AS

+8 URTE



ERREKAN BEHERA/ PEPE MAESTRO

Ibaizabal, 2022

Bioletak, errekan behera doala, ezkutuan dabilen ehiztari bat ikusi du: eskopetarekin... Ai ene! Zer egin? Amonak esan bezala, alde egin? Beharbada animaliak jakinaren gainean jarri behar ditu... Eskerrak Barrabas txakurra aldamenean daukan!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



ILUSIONISTEN TRUKOA / LEO BICAN

Ibaizabal, 2022

Suzko uztaiak, pailazo jantziak, hiru belarriko untxiak... Harrikoskorreko neska-mutilak magiaz betetako talde bati egin behar diote aurre. Iruzzurrezko partida honetan sailkapena baino gehiago dago jokoan, Lingote jaunak bere katalogo iruzurtiko trikimailu zikinena baitu prestatuta.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



ISADORA MOON PIJAMA-FESTA BATERA DOA / HARRIET MUNCASTER

Mezulari, 2023

Isadoraren ama maitagarria da eta aita banpiroa, eta berak bietatik gorde du zerbait. Hortaz, haren lagun Zoek pijama-festa batera gonbidatzen duenean, Isadora pozarren dago: lehenbiziko aldia da beretzat!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



LIBURU BAT BANINTZ / JOSÉ JORGE LETRIA

Txalaparta, 2023

“Liburu bat banintz, beste ezer baino gehiago nahi nuke irakurria eta libreza izan”. Liburu bat ez da soilik orri sorta bat, ez eta istorio bat kontatzen duen hitz segida bat ere. Liburu batean biltzen ahal da mundu oso bat. Zabaltzea aski da batzuetan horretaz ohartzeko.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

IRAKURLE AURRERATUAK / LECTORES/AS AVANZADOS/AS

+8 URTE



ONIN ETA SURF TXAPELKETA / IBON MARTIN

Travel Bug, 2023

Jack Suzkotxima maltzurak plan bat dauka surf-festa handia amesgaizto bilaka dadin. Bere helburua lortzen badu, marrazoek surfl ariak jango dituzte... Lehenbailehen geldiarazi behar dugu! Kortsario zahar baten eta gure lehengusu Siraren laguntzaz, agian lortuko dugu hondamena saihestea.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



NESKEN TALDEA / PASQUAL ALAPONT

Ibaizabal, 2023

Marinari futbola asko gustatzen zaio, eta baloiarekin hain da ona, oinekin magia egiten duela baitirudi. Baina mutilek ez diote kontua errazten, eta patioko futbol zelaian jokatzeara eragozten diote.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



RENATA PIANO JOTZAILEA, INGELESEKO IKASLEA, ETA ABAR, ETA ABAR / RAMÓN GARCÍA DOMÍNGUEZ

Ibaizabal, 2023

Renata piano jotzailea da bere amak artista handia izatea nahi duelako, baina ingelesa ere ikasten du, eta lorezaintza ikasten du... Eginkizun asko dauzka eta, horregatik, lagunekin jolasteko astirik ez dauka! Harik eta, jakina, Renata egun batez lo dagoenean jolasten hasi arte, gauean!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



USTEKABEA ETXALDEAN / PEPE MAESTRO

Ibaizabal, 2023

Etxaldean sekula ez da zeregina falta, baina han bizitzeak une ederrak oparitzen dizkizu, eta astakume baten jaiotza ere ikus dezakezu. Eta Bioletak hori ikusi nahi du kosta ahala kosta!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

MEGAIRAKURLEAK/ MEGALECTORES/AS

+12 URTE



BI GEHI BI (ETA NIRE NERABEZAROKO BESTE ENIGMA BATZUK) / JOSÉ ANTONIO FRANCÉS GONZÁLEZ

Ibaizabal, 2023

Biztazan, bi gehi bi ez da beti lau izaten. Bestela, galdetu Diegori: Roberto delako hori gelara iritsi zenetik, Diegoren bizitza domino piezak bezala ari da jausten. Irenek dagoeneko ez du berarekin egon nahi, gurasoen arteko harremana krisian dago, futbolak ere bazterrera utzi du gehien behar duenean. Dena ateratzen zaio gaizki!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



ITZALIK GABEKO IZAKIAK / DANIEL HERNÁNDEZ CHAMBERS

Ibaizabal, 2023

Biztanleriaren artean sarraskia eragiten ari den izurritearen ondorioz umezurtz geratu ondoren, Creyk Nalcar Haranera joan behar du osabarekin bizitzera. Osaba erregearen zaldun izandakoa da, baina orain beiraren artisau gisa egiten du lan.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



LURREAN HAZIAK / ASELE LURRAZAGA

Elkar, 2023

Iraultza gatibu dago ezezagunen eskuetan, lagun bakarra Sayen maputxe machia duela. Bitartean, Lof Kidu Ngüenewün komunitatean ez dira lo geratzekoak. Zigor ez dago bakarrik, alboan du Nahuel bestengusua, bere kezketan lagun eta ezinegon berrien iturri. Ez dira, ez, Argentinan espero zituzten Aste Santuko oporrak, baina nork esan du hori txarra denik?

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



MAITE NAU, EZ NAU MAITE / GWLADYS CONSTANT

Desclée de Brouwer, 2023

Mutil ikusezina eta bere lagunak instutuan daude. Protagonistak komikiak eta ikasketak gustokoak ditu. Eta hor sortuko dira arazoak. Nork ez du noizbait pentsatu ikusezin izan nahi lukeela? Nork ez du noizbait pentsatu ikusezin izateari utzi nahi liokeela?

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

JAKIN-MINA PIZTEKO / PARA
DESPERTAR LA CURIOSIDAD

**ADIN
GUZTIAK**



**PROPOSAMEN GEHIAGO/
MÁS PROPUESTAS**



**ETA ORAIN EGIN JOLASARI! / Y
AHORA A JUGAR!**

AMANDRE GORRINGO

Eguraldia iragartzeko jolasa

+2 URTE



ZER BEHAR DA?

Amona mantangorri bat. Kartulina edo paper gorriarekin egin dezakete umeek, puntu beltzak margotuta.

NOLA JOLASTU?

1- Ume bakoitzak esku gainean papertxo gorri bat jarriko du (amona mantangorri baten itxura baldin badu, hobeto); listu apur batekin itsasi dezakete esku gainera.

2-Kanta kantatuko dute, eta gero putz egingo dute. Papertxoa hegan ateratzen baldin bada, eguzkia egingo duen seinale. Bestela, ba euria dator.

Ume jolas hau benetako amona mantangorriekin egiten da, haiek ustekabeen aurkitzean. Ikastetxeetan ez da erraza mantangorriak topatzea eta, gainera, ume hain txikiekin arriskuan egongo litzateke. Horregatik, hobe paperezkoak egitea.

Partaide kopurua gutxienez: 1



TXAFOS

Altzoan salto eraginez egiten den kanta

+5 URTE



NOLA JOLASTU?

1-Lurrean marrak marraztu: lau marra paralelo. Alde batean bi, elkarrengandik nahiko gertu (2-3 pausora), eta handik 8 pausora beste biak. Umeen adinaren arabera erabaki distantziak.

2-Umeak bi taldetan banatu. Taldekideak aukeratzeko, zotz egin (ikus zotz egiteko kanta-jolasak). Bi taldeek kide kopuru bera izango dute, eta talde bakoitzari jolastokiaren alde bat egokituko zaio (etxe bat). "Epailea" ere izendatu behar da (heldua edo beste ume bat).

3-Aldiko bi jokalarik egingo dute korrika. Txandaka: lehenengo alde batetik eta hurrengoan bestetik. Beste taldeko umeari (bisitariari) abantaila emango zaio korrika hasteko garaian: 2-3 pauso aurrerago egongo da, hanka bigarren marran jarrita duela. "Epaileak" seinalea ematean, korrika hasiko dira biak. Etxekoa bisitaria harrapatzen saiatuko da, hura bere taldekideengana (bere etxera) iritsi aurretik.


4-Etxekoak bisitaria harrapatzen baldin badu, bisitaria jolasetik kanpo geratuko da. Ez badu harrapatzen, etxekoa geratuko da kanpoan. Beste aukera bat (jokalariak gutxi direnerako aproposa): inor ez kanporatzea, eta harrapatutakoa taldez aldatzea (etxex aldatzea).

5-Taldeetako bat jokalaririk gabe geratzean amaituko da jolasa.



TXIRRIN: ARBOLATIK ARBOLARA **+5 URTE**

Zuhaitz batetik bestera joanez jolasten den harrapaketa jolasa



NOLA JOLASTU?

1-Lau zuhaitz aukeratu behar dira (lekuaren arabera, 5 edo 6 zuhaitz ere erabil daitezke), eta, jolasten hasi aurretik, zuhaitzak zein hurrenkeran “kenduko” diren erabaki behar da (hor jarraituko dute, noski, baina ez dute “etxe” moduan balioko). Aulki-jokoaren antzeko jolasa da hau, baina aulkien ordez zuhaitzak erabiltzen dira.

2-Jokalari kopurua zuhaitz kopurua gehi bat izango da: zuhaitzak 4 baldin badira, 5 lagun (5 baldin badira, 6). Eta ume batek abestu egingo du. Horrenbestez, guztira 6 izango lirateke.

3-Ume bat erdiko puntuan jarriko da (zuhaitzek osatzen duten laukiaren edo laukizuzenaren erdian), eta kantatu egingo du, besteak bere inguruan bueltaka dituen bitartean. Posible da umeak arbolatik arbolara ibiltzea ere, ume horren inguruan izan gabe.

4-Kantatzen dagoen umea isiltzen denean, “txirrin-txirrin” esateari uzten dionean, beste umeak zuhaitzak ikutzera joango dira. Zuhaitz gabe geratzen den umea jolasetik kanpora geratuko da.

5- Zuhaitz bat “kenduko” da, jada ez da “etxea” izango. Eta berriz abestuko du umeak. Lau jokalaria egongo dira, eta hiru zuhaitz. Hurrengoan bi zuhaitz eta bukaeran bat.

6-Jokalari bakarra geratzen denean bukatuko da jolasa.


<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitzak/arbolatik-arbolara>



PUNTA ALA BURU

Orratzekin egiten den jolasa da

+6 URTE



NOLA JOLASTU?

Koloretako burua duten orratzak behar dira. Ume bakoitzari orratz kopuru jakin bat emango zaio (adibidez 5). HHko 5-6 urtekoekin egin daiteke, edo LH hasieran bestela. Orratzen ordez txotxak erabiliz gero, txikiagoentzat ere egokia da.

1-Umeak binaka jarriko dira.

2-Batek orratz bat gordeko du eskuan, ukabila itxita, eta besteak orratza nola dagoen asmatu behar du, gora begira ala behera begira (punta ala buru).

3-Asmatuz gero, orratza berarentzat. "Punta ala buru?", galdetuko du ukabila itxita duenak. Eta asmatu behar duenak bietako bat esango du: adibidez, "Punta!". Eskua irekitzean orratzak punta gora begira baldin badauka, asmatu du. Berarentzat da orratza.

4-Bi jokalarietako bat orratzik gabe geratzen denean bukatuko da jolasa, edo umeak aspertutakoan.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/punta-ala-buru>





JOLASAK

Ttantto, Txirritx eta Xango

3-4 URTE

4-5 URTE

5-6 URTE



TTANTTO



TXIRRITX



XANGO






Ezagutu pantailetan euskaraz ditugun baliabideak



1.EUSKAL ENCODINGS

Euskarara bikoiztutako eta azpidatzitako edukien datubasea, edukiak deskargatuta edo online ikusteko aukera eskaintzen duena.



+1500 eduki
DOAN ETA IRAGARKIRIK GABE

Zer Non Ikusi

2. ZER NON IKUSI

Streaming plataformetan euskaraz dauden edukien zerrenda eskaintzen du, zein plataformatan dagoen eta edukiaren informazioarekin. Horretaz gain, zinemetako euskarazko estreinaldien inguruko informazioa ere biltzen du.




110

TELESAIL ETA FILM HAURENTZAKO



3. 3 KLUBA

ETB3-ren Smartphone, tablet eta Smart TV-rako aplikazioa; ETBren haurrentzako telesail eta filmak biltzen dituena: marrazki bizidunak, 3 ene kantak, bitartean etxetik jolasten, erronkan...



4. ENE KANTAK

Haurrentzako musika eta dantza euskaraz eta euskararentzat.






GAME
ERAUNTZIA

6. GAME ERAUNTZIA

Entretenimendura zuzendutako euskarazko bideojokoen zerrenda. Zerrendako bideojoko batzuk euskaraz merkaturatu dira, eta beraz, ez da ezer berezirik egin behar euskaraz jokatzeko. Beste batzuk, aldiz, itzulpen ez ofizialak dira, eta, horregatik, itzulpena deskargatu eta instalatu egin behar da.



103

BIDEOJOKO

PROPOSAMEN GEHIAGO

Euskarazko produktuen katalogoa



GOZATU UDAN
irakurtzen eta jolasean